

Jendearen arretarako eta Oteiza Museoan bisitari eta erabiltzaileak sartzeko protokoloa, covid-19a hedatzea saihesteko

2020ko azaroaren 26a

Protokolo honen aplikazioaren helburua Oteiza Museoa gune seguru gisa eta covid-19aren eragin eremutik kanpo mantentzea da.

Protokolo honen barnean sartzen dira covid-19aren krisian zehar Oteiza Museorako sarrera arautuko duten neurriak, betiere BOEk argitaratzen dituen arauekin bat eta Kultura eta Kirol Ministerioak eta Nafarroako Gobernuaren Museo Sistemak egin gomendioei jarraikiz.

Oteiza Museoa 2020ko ekainaren 2an jendearentzat zabaltzen denetik aurrera aplikatuko dira neurri horiek, bertan behera gelditzen direla iragarri arte.

Oteiza Museoko instalazioetara iristen diren erabiltzaile edo bisitariak neurri egokiak hartu beharko dituzte bere osasuna babestu eta kutsatzea saihesteko, eta osasun agintariak ematen dituzten gomendioak bete beharko dituzte, 2 metroko tartea gordez bisitarien artean eta bisitarien eta aretoko langile eta Museoko segurtasuneko langileen artean.

1. Museoan egon daitekeen gehieneko pertsona kopurua

Neurri hauek indarrean dauden bitartean, gehienez 75 pertsona egon daitezke aldi berean Museoan, eta 12 bisitari, berriz, lantegi-etxean. Kopuru horiek aukera ematen dute eskatzen den segurtasun tartea mantentzeko eta protokolo honetan jasotzen diren arauak behar bezala betetzeko.

2. Museorako sarrera

Oteiza Museora iristen diren bisitari eta erabiltzaileek bere oinetakoen zolak desinfektatu beharko dituzte, Museoan sartu aurretik, zentroko sarreran jarritako alfonbra desinfektatzailean.

Eskuak desinfektatu beharko dira, harreran dagoen gel hidroalkoholikoaren banagailua baliatuz horretarako.

Zentrorako bisitan zehar maskara erabiltzea derrigorrezkoa da.

Museoko altzariak eta obrak ezingo dira ukitu.

Oteiza Museoaren app-a mugikorretara doan jaistea gomendatzen da, informazio eta didaktika aldetiko tresna lagungarria izango baita Bildumarako bisitan zehar.



ANDROID:



IOS

3. Taldeak hartzea

Museora 12 pertsonatik gorako talderik etorri behar izanez gero, aurrez jakinarazi behar da, (+34)948332074 telefono-zenbakian, baimendua izan dadin. 9:00etatik 15:00ak arte.

4. Bisita gidatuak

Jorge Oteiza Museo Fundazioak ikustaldi gidatuak eskaintzen ditu artearen profesionalen eskutik. Hauek adituak dira bilduma iraunkorrari eta eraikinaren arkitekturari dagokienez. Ikustaldian, gehienez, 12 pertsonako taldeak izaten dira

5. Harrera eta bisitak

Harrerako pertsonalak modu erraz batean emango du publikoak segurtasun neurriak betetzera begira behar duen informazioa.

Txartel bitartez ordaintzea gomendatzen da, eta ahal den neurrian eskudirutan ordaintzea saihestuko da. Txanponekin edo billeteekin ordainduz gero, alkoholarekin desinfektatu beharko dira.

Museoak zenbait hizkuntzatan dauzkan liburuxkak eskuan banatuko ditu harrerako langileak. Bisitariari galdetu egingo zaio liburuxkarik nahi duen eta zer hizkuntzatan nahi duen, eta sarrerako tiketarekin batera emango zaio.

Igogailua banaka erabili behar da, eta bakar-bakarrik mugikortasun eta desgaitasun arazoak dituzten pertsonentzat izango da.

Harrerako arduradunak oinarrizko segurtasun neurriak azalduko dizkio bisitariari. Hori guztia Museoko sarreran jarritako panel batean ere adieraziko da.

Jantzitegi zerbitzua itxita egongo da. Bisitariak gorputzaren aurrealdean eraman beharko ditu bere gauzak, edo besoan helduta, obraren bat kalte dezakeen oszilazio oro saihestuta.

Aterki-ontzia mantenduko da.

Bisitarien portaera arraroren bat antzemanaz gero, edo bisitarien batek haserrea adieraziz gero, berehala emango zaio horren berri segurtasuneko pertsonalari, ondoren Museoko langileei edo, hala badagokio, 112ari abisu emateko.

6. Liburutegia

Liburutegiko erakusketa-guneko apaletan ale bana egongo da liburuko. Bisitariak liburuak kontsultatu ahal izango ditu, betiere Museoko gainontzeko espazioetan eskatzen diren babes neurriak betez, besteak beste liburuak kontsultatu aurretik eskuak desinfektatuta.

Bisitariak aleren bat erosi nahi badu, harreran bildutakoetako ale berri bat emango zaio.

Txartel bitartez ordaintzea gomendatzen da, eta ahal den neurrian eskudirutan ordaintzea saihestuko da.

Bakar-bakarrik Oteiza Museoak editatutako liburuak erakutsi eta salduko dira.

7. Jantzitegia

Jantzitegia ezingo da erabili.

8. Lantegi-etxerako sarrera

Lantegi-etxeak gehienez 6 pertsona hartu ahal izango ditu aldi berean.

Ezingo da ukitu ez erakusketako elementurik ez karpetarik.

9. Komunak

Bakar-bakarrik 1. solairukoak egongo dira bisitariantzat zabalik.

Komunetarako kanpoko ateak zabalik egongo dira.

Komunera banaka joan beharko da, eta ezingo da pertsona bat baino gehiago egon bertan.

10. Ikerkuntza Zentrarako sarrera eta materialen kontsulta

Lehentasuna emango zaio bide telematikoak baliatzen dituen ikertzaile erabiltzaileari eskaini beharreko arretari.

Irakurketa-gelako espazioan bi zati bereiziko dira, eta erakusmahai bat egongo da dokumentuak eman eta jasotzeko. Ikertzaile erabiltzaileak maskara eta eskularruak jantzita izango ditu irakurketa-gelan, eta gel desinfektatzailea ere izango da bertan.

Sarrera presentziala, aurretik ordua hartuta. Zerbitzuak, 2010az geroztik, aurretik ordua hartuta funtzionatzen du. Horrek aukera emango du bisita presentzialak astearte eta ostiraletara bideratzeko, hain zuzen espazio horretan asteazken eta larunbatetan lan egiten duen garbiketa-taldeak behar bezala laga ahal izan dezan laneko espazio hori.

Osasun Ministerioak emandako gomendioek ezartzen dutenaren arabera, gehienez 10 dokumentu zerbitzatuko dira eguneko eta pertsonako.

Osasun Ministerioak emandako gomendioek diotenaz bestela, ekipamendu informatiko publikoa erabili ahal izango du erabiltzaileak. Hurrengo egunean, garbiketa-zerbitzuak desinfektatu egingo du ekipamendua.

Kontsultatzen diren material originalak 14 egunez egongo dira berrogeialdian, Kultura Ministerioak eman jarraibideen ildotik, beste erabiltzaile bati zerbitzatu edo dagozkien kontserbazio lekuetara itzuli aurretik.

11. Garbiketa

Oteiza Museoak jendearentzat zabalik dauzkan eremu guztiak egunero garbitu eta desinfektatuko dira. Informazio zehatzagoa nahi izanez gero, covid-19a hedatzea saihestera begira Oteiza Museoak duen garbiketa eta desinfekzio protokoloa kontsultatu.